



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 29a

86. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena. Hezkuntza Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, gazteriaren arloko politikei buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentroko errotulua elebiduna izan dadin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Parlamentuari proposamen bat helaraz diezaión iruzur fiskalaren aurkako estrategia publiko bati buruz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du iruzurraren aurkako eredu berri baten aldekoa dela. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan ziurta dezan sexu bereko bikotea osatzen duten emakumeek laguntza bidezko ugalketarako eskubidea izatea. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita mantentzeko. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten baitu Espainiako Gobernuak Firat Dermikiran-en kasuan izandako jokabidearekin. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes, elkartasuna eta aintzatespena aitortzen baitzikio Askatasunaren Flotilla nazioarteko elkartasun-ekimenari. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Gamesako langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (14. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak terrorismoaren biktimen eta beren senitartekoen oroitzapena errespetatu eta zaintzearen garrantzia berresten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hezkidetzaren aldeko proiektuak eta planak indartu eta susta ditzan ikastetxeetan. Mozioa erretiratzea (15. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, behar duten Nafarroako udalek haien hornitzaileei ordaindu ahal izateko funtsa dela-eta Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena egiteari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andre-ak egina (16. or.).
- Galdera, Amma taldeko lan gatazka konpontzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (17. or.).
- Galdera, 365/2012 Ebazpenak zahar etxeen, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zentroyen eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zentroyen kudeaketan dituen eraginei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andre-ak egina (18. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzak-hitzarmenari buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andre-ak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez den ordezkatu erretiroa hartu duen Leitzako Nekazaritza Ganberako langile bat, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (20. or.).
- Galdera, jakitekoa zer eragilerekin koordinatu den Ekintzaitelza Plan berria, Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoetako tximinietan kutsagarriak era jarraituan neurtzeko sistemak ezartzeari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroaren proiektioari eta datoen hilabeteetako lan-dinamikari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroa Bai parlamentu-taldeko bi parlamentari kanporatzea (24. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Kontseilu Nagusiko kide izateko proposatu beharreko pertsonak hautatzea (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Hezkuntza Batzordeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen. Proiektu hori 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Hezkuntza Batzordeak 2012ko urriaren 17an eta 24an egindako bileran onetsia

Foru Lege proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 1. artikuluekin bat, Espainiako hezkuntza sistemaren oinarrietako bat ekitatearen printzipioa da, horrek bermatuko baititu aukera berdintasuna, hezkuntzak guztiak hartzea eta bazterkeria eza, batetik, eta desberdintasun pertsonal eta sozialak, bereziki desgaitasunak eragindakoak, berdinduko dituen elementuaren eginkizuna joka dezakeelako, bestetik.

Nafarroako Eskola Kontseilua, berriz, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorrarekin zerikusia duten sektore sozial guztien kontsulta eta partaidetza bideratzen dituen organo gorena da.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak 7.1.i) artikuluan xedatzen du Eskola Kontseiluari besteak beste gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaiola, derrigorrez: "Irakaskuntzaren kalitatea hobetzera eta Nafarroako gizartearen egoerari egokitzera bideraturiko xedapen eta jarduketara orokorrak eta gizarte-sektoreen artean eta giza-banakakoen artean dauden diferentzia eta mailaketak konpentsatzera bideraturikoak".

Kontuan hartuta egun aniztasunari arreta ematea dela Espainiako hezkuntza sistemaren zutabe-etako bat, eta ikusirik Nafarroako Eskola Kontseiluak sortu zenetik gaur arte bereganatu duen esperientzia, egokitzat eta beharrezkotzat jotzen da desgaitasunaren ondorioz arreta berezia behar duten ikasleak ordezkaturiko dituen kide bati tokia egitea organo horren barruan.

Bestetik, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak, aipatutako 7.1 artikuluan, xedatzen du, halaber, Eskola Kontseiluari besteak beste gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaiola, derrigorrez: "b) Ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta geografikoki banatzeko plangintza orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak. c) Ikastetxeetako ezaugarriei, plantillei eta hezkuntza ekipamenduei buruzko arau orokorrak. d) Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutakoen finantzaziorako irizpide orokorrak." Eta 7.2 artikuluan, berriz: "Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusiak, bere aldetik, honako gaiei buruzko proposamen eta txostenak igorri ahalko

dizkio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari: a) Hezkuntza sistemaren ebaluazioa. b) Ikastetxeen araubidea. c) Ikastetxe publiko eta pribatueta legezko arauak betetzea. d) Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza. e) Giza baliabideen arloko politika.”

Kontuan hartuta eginkizun eta eskumen horiek ageriko eragina dutela ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutakoetako zuzendaritzari dagozkion eginkizunetan, bidezkoztat jotzen da bi sektoreetako zuzendariak ordezkari izatea Nafarroako Eskola Kontseiluan.

Artikulu bakarra. Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzea.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua edukia hauexek izanen da aurrerantzean:

“4. artikulua.

1. Hezkuntza Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia kide hauek osatuko dute:

a) Kontseiluburua, Nafarroako Gobernuak izendatuko duena.

b) Nafarroan dauden maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatueta irakasleen bost ordezkari, honela banatuta:

Ikastetxe publikoen hiru ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari irakasleen Langileen Batzordean ordezkari gehien duten hiru sindikatuetatik bana, beraiek aukeratu beharrekoak.

Ikastetxe pribatuen bi ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza pribatua ordezkari handiena duten bi sindikatuetatik bana, nork berea aukeratu.

c) Bost ordezkari, ikasleen guraso elkarten federazioek proposatu eta bakoitzak duen bazkide kopuruaren arabera aukeratuak.

d) Nafarroako maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatueta irakasleen bi ordezkari, irakasleen elkarteek edo elkarten federazioek proposatu eta bakoitzak duen ordezkariaren arabera aukeratuak.

e) Nafarroako ikastetxe pribatueta entitate titularren eta enpresaburuen elkarten hiru ordezkari, elkarten edo federazioen proposamenari jarraikiz bakoitzaren ordezkariaren arabera auke-

ratuak, Nafarroako Foru Komunitatean dituzten ikastetxeetan dagoen ikasle kopuruaren arabera.

f) Hezkuntza administrazioaren bost ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak proposatuak.

g) Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.

h) Irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonen artean aukeraturiko ordezkari bat, Hezkuntzako kontseilariaren proposamenari jarraikiz izendatua.

i) Unibertsitateetako bi ordezkari, bata publiko eta bestea pribatuko, kasuan kasuko gobernu organoaren proposamenari jarraikiz aukeratuak.

j) Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen bi kide, Batzordeak berak aukeratuak.

k) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duen enpresaburuen elkarteak proposaturiko ordezkari bat.

l) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duen sindikatuak proposaturiko ordezkari bat.

m) Nafarroako ikastetxeetako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, Administrazioa-Erroko Batzordeak proposatua.

n) Nafarroako Foru Komunitateko desgaitasun motak bildu, eta ordezkari handiena duen erakundearen ordezkari bat.

ñ) Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoeta zuzendarien ordezkari bat, ikastetxe horietako zuzendarien elkarteek proposatuak.

o) Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioko ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkari bat, ikastetxe horietako enpresaburuen elkarteek proposatua.

p) Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko idazkari lanak Nafarroako Gobernuak horretarako izendatutako pertsonak beteko ditu. Bileretan parte hartuko du, hizpidearekin baina botorik gabe, eta horien akta egiten du.

q) Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten ordezkari bat, hautatua izanen dena berdintasunaren aldeko agenteen eroldara aurkezten diren artetik; errolda hori helburu horrekin sortuko da.

2. Hezkuntza Departamentuak Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren esku

utziko du bere eginkizunak egoki burutzeko behar adinako giza baliabide nahiz baliabide materialak.

3. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere eginkizunak modu egokian aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen dituen teknikari edo aholku-emaileen laguntza eska dezake. Teknikari eta aholku-emaile horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez.

4. Eskola Kontseiluko kideek uneoro eskatu ahalko dizkiote Hezkuntza Departamentuari beren eginkizunak egoki betetzeko behar dituzten informazio eta agiriak, kontseiluko buruaren bitartez”

Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako zuzendarien ordezkariak sartzea.

Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako zuzendarien ordezkariak izendatu bitarte, kontseiluan izaera horrekin sartuko dira egun irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonak diren aldetik kide diren zuzendariak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, gazteriaren arloko politikei buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkezturiko jabeldura, gazteriaren arloko politikei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Allik ondokoa dio, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren aurrean azalduta:

Idazki honen bidez ondoko parlamentu-ekimena aurkeztu duela, zeinaren bidez jabeldura bat aurkeztu baitu, Nafarroako Gobernuak gazteriaren arloko bere politikak azal ditzan.

Zioen azalpena

Gazteriaren arloko politikak nahiko lausotuta geratu ohi dira munta handiko beste politika batzuk dituzten zenbait departamentutan, nahiz eta egon badauden arlo hori jorratzen duten institutuak; adibidez, Gazteriaren institutuak.

Gazte izatea eta gaztetetasunaren kontzeptua aldatu egin dira denborarekin, gizartearen bilakarearen beraren arabera. Gaur egun, kezkarriak dira gazteriari buruzko zenbait alderdi, krisi ekonomikoaren ondorioz are larriagoak direnak.

Bereziki, emantzipazioa, emantzipazioa erabateko autonomia ekonomikoaren arabera delako; halere, gazteek lanari dagokionez kolokatasuna eta segurtasun gabezia bizi izateak gaztaroa itxuraz luzatzen ari da. Alegia, lanpostu bat izan ohi da gaztaroan igo beharreko azken maila, behin betikoa, bizitzaren aro horretako prestakuntza-aldi guztia justifikatzen zuena.

Plan integral bat behar da, departamentuen arteko koordinazioa eta jarduketa-esparruak jasoko dituen, eta zeharkako politikak taxutu. Gobernuak bere esku dituen baliabideen zabalkundetik hasita eta departamentuaren ildoan eta diruz lagundutako entitateen jarduketa-lerroen arteko koherentzia politikorekin jarraituta.

Une honetan garatzeke dago Gazteriari buruzko Foru Legea, bai eta, gure aburuz, Gazteriari buruzko Foru Plan bat ere, arlo horretako jarduketak jasoko dituen.

Nafarroako Gobernuarentzako jabeldura, gazteriaren arloko politikei eta Gobernuak arlo horretan garatuko dituen ildo nagusiei buruzkoa.

Iruñean, 2012ko urriaren 11n

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentroko errotulua elebiduna izan dadin.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Ilundaingo Zentroko errotulua elebiduna izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan maiatzaren 31n, Parlamentu honetako Gizarte Politiketako Batzordeko kideok bisitan joan ginen Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Zentrora, zeina Nafarroako Ilundainen baitago.

Batzorde honek oso balorazio positiboa egin zuen instalazioei buruz eta geroago jakin genuen zentroa jada funtzionamenduan dagoela, Ilundain Fundazioak kudeatuta. Halere, beste behin ikusi ahal izan genuen Nafarroako Gobernuak ez duela betetzen euskararen erabilerari buruzko legedia; izan ere, errotulazioa gaztelania hutsean dago goitik behera, nahiz eta, jakina den bezala, Ilundaingo herria Aranguren Ibarreko Udalean egon eta udala eremu mistoan egon. Nafarroako Gobernuaren eraikin ofizial bat denez, bertako errotulazioak ele bitan egon behar du.

Kexa aurkeztuta zegoen jada Lehendakaritza Batzordean, Tuterako epaitegien eraikineko errotulazioa zela-eta egindako bilkuran –Nafarroako Gobernuak presaka kendu zuen errotulazio elebiduna, eremu ez euskaldunean egoteagatik–, baina Ilundaingo Zentroko errotulazioa gaztelania hutsean dago oraindik ere.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ele bitan errotula ditzan Ilundaingo Neurri Judizialak Betetzeko Adingabeentzako Zentroko instalazioak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak gomendatzen duenari jarraikiz.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean.

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Parlamentuari proposamen bat helaraz diezaion iruzur fiskalaren aurkako estrategia publiko bati buruz.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Parlamentuari proposamen bat helaraz diezaion iruzur fiskalaren aurkako estrategia publiko bati buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Beharrezkoa eta premiazkoa da Nafarroak UPN garatzen ari dena ez bezalako eredu bat jorra dezan ekonomiaren, aurrekontuen nahiz zergen arloetan, eta, zergen arloko politikaren barruan, ekintza sendo eta irmo bat abiaraz dezan iruzur fiskalaren aurka.

Politika bat, bermatuko duena herritar guztiak duten eskubidea kalitatezko zerbitzu publikoak jasotzeko, eta gure lurraldean justizia sozialaren zerbitzuko tresna bat bihurtuko dena. Gisa horretako politika batek beti eskatzen du –are gehiago gaurko krisi egoeran– baliabide publikoak bideratzea erronkei eta beharrezkoen aurre egiteko; esaterako, zerbitzu publiko unibertsalak bermatzen dituzten egitura publikoak mantentzeko, ekonomia pizteko, enplegua sortzeko, eta abar.

Baliabide publikorik ez dagoelako argudio faltsua baliatuta, UPNren eta PPren kudeaketak justifikatu egin nahi ditu esparru ekonomikoan eta sozialean ondoriorik dramatikoenak dituzten neu-

riak; hor ikusten da, hain zuzen ere, zer-nolako txirotze-soziala dakarren aurrekontu politika horrek, zeina gastua murrizten, defizita inposatzen eta zorra ordaintzea lehenesten tematuta baitago. Horren guztiaren ondorio dira langabetuen kopurua jasanezina izatea, langile publikoen lan-baldintzak nahiz osasuna eta hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak larriki okerragotzea edo gure nagusien pentsioak arriskuan egotea etengabe.

Iruzur fiskalak ondorio larriak dakartzkio gizarte osoari, eta zuzen-zuzen jotzen du justizia sozialaren zutabe nagusien aurka. Ekitatea, aberastasunaren birbanaketa, erantzukizun soziala... ezerezean gelditzen diren hitzak dira, iruzur fiskalaren eta horrekiko permisibitatearen eta presentzia sistemikoaren aurrean. Praktika zeken bat da, esparru askotan ezarrita dagoena eta erauzi egin behar dena jazarpenaren, ikuskapenaren eta zigorraren bidez eta, nola ez, kontzientziazioaren eta horretarako herritarren erantzukizun sozialerako hezkuntzaren bidez.

Horregatik guztiagatik, eta Nafarroan aurrekontu- nahiz zerga-eztabaida irekita dagoenez, beharrezkoa da proposamen hau, UPNren proposamenaren ordezkia, eztabaidatzea, iruzur fiskalaren aurkako borrokaren esparruan. Proposamen honek xede du beharrezkoak diren baliabideak bermatzea, sektore publikotik kalitatezko gizarte bat eraikitzeko eta politika fiskalaren egungo parametro bidegabeak zuzentzeko, eredu propio, justu eta eraginkor bat definituta.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Legebiltzar honi hiru hilabeteko epean aurkez diezaion Iruzur Fiskalaren aurkako Estrategia Publiko bat, eztabaidatzeko eta onesteko. Gobernuak ekarri nahi dituen proposamenez gain, estrategia horrek ondokoak jaso beharko ditu:

A) Iruzur fiskalaren aurkako zuzendaritza nagusi bat sortzea. Zuzendaritza hori Ekonomia Departamentuaren mende egonen da, eta zeharkako ikuspegia izanen du Gobernuaren barruan.

B) Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta materialak areagotzea –egungoak ez dira aski–, bultzada handi bat emateko iruzur fiskala

detektatu eta jazartzeko lanari, eta jarduketak azken bururaino eramatea.

C) Dauden iruzur mota eta errealitate ezberdinak aztertzeke, detektatzeko eta jazartzeko estrategia egoki bat onestea. Iruzur fiskalaren gune nagusiak identifikatzea, horietan jartzeko lehentasuna.

D) Helburu zehatz eta neurgarriak ezartzea, taxututako strategiaren ebaluazio eraginkor bati ekin ahal izateko. Eta horren jarraipena egitea.

E) Ezkutuko ekonomia detektatu eta horren gainean jarduteko berariazko plana.

F) Ezarritako neurri fiskalaren behar bezalako eta egiazko aplikazioaren jarraipena eta kontrola, horien bidez lor baitaitezke kenkariak, salbuespenak, diru-laguntzak eta onura fiskalak.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du iruzurraren aurkako eredu berri baten aldekoa dela.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu iruzurraren aurkako eredu berri baten aldekoa dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Foru Araubideko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroan beharrezkoa da UPN garatzen ari dena ez bezalako eredu bat jorratzea ekonomian, aurrekontuen nahiz zergen arloetan. Politika bat, bermatuko duena herritar guztiek duten eskubidea kalitatezko zerbitzu publikoak jasotzeko, eta gure lurraldean justizia sozialaren zerbitzuko tresna bat bihurtuko dena.

UPNren kudeaketaren porrotak esparru ekonomikoan eta sozialean ditu bere ondorio dramatikoenak; hor ikusten da, hain zuzen ere, zer-nolako txirotze soziala dakarren aurrekontu politika horrek, zeina alferrikako inbertsioetako xahuketan tematuta baitago eta pertsona behartsuenen oinarriko beharrianak albo batera uzten baititu. Langabetuen kopurua jasanezina da, langile publikoen lan-baldintzak nahiz osasuna eta hezkuntza bezalako zerbitzu publikoak larriki okerragotzen ari dira, eta gure nagusien pentsioak arriskuan daude etengabe.

Horregatik guztiagatik, eta Nafarroan aurrekontu- nahiz zerga-eztabaida irekita dagoenez, behean sinatzen duen parlamentu-talde honen ustez beharrezkoa da proposamen hau, UPNren proposamenaren ordezkia, eztabaidatzea, iruzur fiskalaren aurkako borrokaren esparruan. Proposamen honek xede du beharrezkoak diren baliabideak bermatzea, sektore publikotik kalitatezko gizarte bat eraikitzeke eta politika fiskalaren egungo parametro bidegabeak zuzentzeko, eredu propio, justu eta eraginkor bat definituta.

Iruzur fiskalak ondorio larriak dakartzkio gizarte osoari, eta zuzen-zuzen jotzen du justizia sozialaren zutabe nagusien aurka. Ekitatea, aberastasunaren birbanaketa, erantzukizun soziala... ezerezean gelditzen diren hitzak dira, iruzur fiskalaren eta horrekiko permisibitatearen eta presentzia sistemikoaren aurrean. Praktika zeken bat da, esparru askotan ezarrita dagoena eta erauzi egin behar dena jazarpeneren, ikuskapeneren eta zigorraren bidez eta, nola ez, kontzientziazioaren eta horretarako herritarren erantzukizun sozialerako

hezkuntzaren bidez, modu justu batean laguntzeko gizarte justu eta orekatua eraikitzen pertsona guztientzat. Hartara, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeon ustez, bidegabeak dira “amnistia fiskala” eta arau-hausleentzako zigor-murrizketak, PPren Espainiako Gobernuak eta UPN-PSNren Nafarroako Gobernuak abiarazitakoak.

Izan ere, UPNk, PPK eta PSNk abalaturako zigor-esparruak berak ere iruzurrarekiko amore-emankortasuna eta konparaziozko bidegabekeria erakusten du, eta hori aldatu beharra dago. Egungo esparruaren arabera, supermerkatu batean 301 euroko lapurreta bat delitutzat hartzen da; iruzurgile batek, aldiz, 120.000 eurotik gora lapurtu behar ditu, delitu bat egin izana egotz diezaioten. Gogorazi beharra dago egoera bidegabe hori, zeinean legedi indardunaren arabera pertsona batek delitu fiskala egiten baitu baldin eta iruzurraren zenbatekoa 120.000 euro baino gehiagokoa bada urte batean eta zerga bakar batean eta, betiere, doloa badago (delitu bat edo jokabide zigorgarri bat egiteko borondateari eta ezagutzari buruzko kontzeptu juridikoa).

Gure ustez, UPNren gobernuek inoiz ere ez dute egiazko borondaterik erakutsi ezkutuko ekonomiarik aurre egiteko eta zerga iruzurra bitarteko egokiekin jazartzeko. Konpondu gabeko arazo dramatiko baten aurrean gaude.

Halaber, iruzur fiskala jazartzera bideratutako baliabideek administrazio guztiei dakarzkieten “itzulkin” handiak (horiek bai) egiaztatuta badaude ere, Gobernuak eta UPNk, “Iruzurraren aurkako Planak” deitutakoetan, ez dute helburu izan aurre-rabidea egitea, behar bezalako erabakitasunez, ezkutuko ekonomia eta iruzurra desagerrarazteko prozesuan, zeina beharrezkoa eta presakoa baita Nafarroan. Are gehiago, gure ustez, UPNren gobernuek esparru horretan baliatu duten politikak modu zeharo herabetian hartu du auzi hau; irregulartasun fiskalekiko jokabide amore-emailea duen Gobernu batek bezala, hain zuzen ere.

Iruzurraren aurkako Planaren finantzaketari urtez urte bideratutako baliabideen progresio negatiboa ikustea besterik ez dago, ondorioztatzen beharrezkoa dela beste bultzada handi bat ematea administrazio publiko ororentzat lehen mailako jarduketa izan beharko lukeen jarduketa bati, askoz ere diru-baliabide, giza baliabide eta baliabide tekniko gehiago bideratuta iruzurraren gaitzaren aurka.

Comptos Ganberak berak bere txostenetan nabarmendu du diru-bilketa sistemak gabezia larriak dituela bere kudeaketaren efizientzia eta eraginkortasuna baloratzeko, preskripzioen kopurua

eskandalagarria eta onartezina dela eta helburu zehatz, neurgarri eta ebaluagarriekiko estrategia ambiziotsu bat ezarri beharra dagoela.

Eta konparaziozko datuek ez dute Nafarroa toki hobetoan uzten. UPNren politikaren porrota erakutsi besterik ez dute egiten ikusteak Gipuzkoan, esate baterako, bikoiztu egin dela ustezko iruzur fiskala dela-eta Justiziari igorritako kasuen kopurua, edo Estatuan, azken urteotan, % 23 igo direla iruzurraren aurkako borrokaren emaitzak; Nafarroan, aldiz, % 0,57 baino ez dira hobetu emaitza horiek.

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen iritziz, Nafarroako erakundeek –eta, bereziki, Nafarroako Gobernuak– egungo sistema aldatu behar dute, eta mota guztietako behar adina baliabide esleitu behar dituzte delitu fiskalei jazartzeko eta ikuskarpenaren, kudeaketaren eta diru-bilketaren arloetan gure gizarteak behar dituen helburuak eta eraginkortasuna lortzeko. UPNren Nafarroako Gobernuak behartsuenen lepora egiten ari da bere murrizketak, eta zapal-zapal egiten ari da Ongizate Estatuaren zutabeak –hezkuntza, osasungintza eta gizarte politikak–, guztion baliabideak kentzen ari direnen aurkako jazarpena adeitsuki albo batera utzi bidenabar. Halako Gobernu batek ordezko bat behar du premia, baita arlo honetan ere.

Hori dela eta, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldea honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela iruzurraren aurkako borrokaren jarduketa-eredu berri bat jorratzea, UPNren gobernuaren ereduaz bestelakoa, iruzur fiskalarekiko zero tolerantzia eta eraginkortasunean oinarrituta.

2. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak uste du iruzurraren aurkako plan berri bat taxutu beharra dagoela, eta plan horrek ondokoak jaso beharko lituzkeela:

– Helburu zehatz, neurgarri eta ebaluagarriekiko estrategia baten diseinua.

– Egungo aurrekontua bikoiztea.

– Iruzurraren aurkako borrokara bideratutako ikuskatzaileen kopurua bikoiztea 2013an zehar.

– Berariazko giza baliabideak eta baliabide teknikoak jartzea, iruzur fiskaleko gune jakin batzuk azalerrarazteko.

– Tributu arloko betebeharrak betetzeari dago-kionez herritarren erantzukizunerako estrategia irmo bat taxutzea, hezkuntza arloko eta sentsibilizazio arloko ekimenen bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa eta premiazkoa dela iruzurraren aurkako berriazko zuzendaritza nagusi bat sortzea Nafarroako Gobernuaren barruan.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo legediak sortzen duen asimetriaren eta bidegabekeriaren aurka dagoela, zeinak delitu fis-

kaltzat hartzen baititu urte berean eta zerga bakar batean 120.000 eurotik gora egindako iruzurrak, eta egoera hori aldatzeko konpromisoa hartzen du.

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan ziurta dezan sexu bereko bikotea osatzen duten emakumeek laguntza bidezko ugalketarako eskubidea izatea.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita gizarte zerbitzuen zorroan ziurta dezan sexu bereko bikotea osatzen duten emakumeek laguntza bidezko ugalketarako eskubidea izatea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lagundutako Giza Ugalketa zerbitzua eskaintzen duen unitatea Nafarroako Ospitale konplexuan dago. Jakina den moduan lagundutako giza ugalketa burutzeko antzutasun diagnostikoa edo agindu klinikoa behar dutela izan zerbitzua eskaintzen duten emakumeek, eta horri gainera emakume heterosexualaren izaera ere gehitu behar zaio la bele beharreko eskakizunetan.

Egoera hau izanik, badakigu hainbat emakume hurbildu dela Nafarroako Ospitale Konplexura zerbitzu hau eskatuz eta ukatu egin zaiela zerbitzu eskuratu ahal izatea. Emakume hauek, izan, ama izan nahi duten emakume ezkongabeak direlako, hau da, haien haurra bakarrik izan nahi dutelako bikotekiderik gabe edo, izan, bikote emakumezkoa dutelako gainerako zerga berberak ordainduagatik, zerbitzu hau eskuratzeko eskubidea ukatu zaie.

Eskubide hau ukatzea Arartekoaren hitzetan sexu aukeragatik gertatzen den bazterketa da. Bazterketa honek berezko eskubideak ukatzen dizkie emakume horiei eta hori, administrazioak ezin du gertatzen utzi.

14/2006 maiatzaren 26ko legeak, lagundutako Ugalketa Tekniken legeak halaxe dio:

“18 urtez gorakoa den eta gaitasun osoa duen edozein emakume izan daiteke Lege honek arautzen dituen teknikien jasotzaile edo erabiltzaile, betiere idatzi bat aurkeztu badu bere baimena emanaz libreaki, kontzienteki eta modu zehatzean. Emakumea Lege honek arautzen dituen teknikien erabiltzaile edo jasotzaile izan daiteke bere egoera zibila zein den edo joera sexuala zein den aintzat hartu gabe.”

Hasiera batean emakume hauek ez daukate ugalkortasun arazorik beraz, ez omen dute zerbitzua eskuratzeko eskubiderik, hori da jaso dugun erantzuna galdera egin dugunean. Argia da ordea, emakume hauek haurdun geratzeko ezintasuna dutela arrazoi bategatik edo besteagatik. Emakume hauek hasiera batean ez dute beraz, ugalkortasun arazorik beren gorputzari dagokionez, araua modu itxian ulertzen badugu. Baina haur bat izan nahi badu bere emaztekiarekin edo bakarrik, bis-

tan da antzutasun arazo bat badagoela bi emakumez osatutako bikote bat delako edo bakarrik ama izan nahi duelako.

Egun, errealitatean, modalitate askotako familiak daude eta bikote harremanak ere bai. Izan ere sexu bereko senar-emazteak, matrimonioak daude eta esan beharrik ez dago ohikoa eta logikoa dela ume bat eduki nahi izatea. Horregatik jotzen dute gainerako emakumeek bezala osasun sistema publikora in vitro ernalketa bat jaso ahal izateko edo bere ugalketa lagunduta burutzeko.

Hau guztia azalduta ondoko erabaki proposamena aurkeztu nahi du Bildu Parlamentuko Taldeak Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako zerbitzuen prestazi-

orako zorroan sexu bereko bikotea osatzen duten emakumeen laguntza bidezko ugalketa eskubideak berma ditzan sistema publikoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lagundutako giza ugalketa burutzeko zerbitzua eskuratu ahal izateko, antzutasun diagnostikoa, agindu klinikoa edo ezintasuna izenda ditzan bete beharrezko oinarritzko baldintza moduan. Horretarako nahikoa izanen da berariazko medikuaren agiria; izatezko bikoteen erroldan izena emana izatea edo ezkontuta egoitea sexu bereko emakume bikoteen kasuan; eta bikotekiderik ez izatearen aitortza emakume ezkongabeen kasuan.

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita manten dezan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita manten dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan urriaren 17an, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoak zerbitzu emateari utzi dio, interes ezberdinen arteko lan bitartekaritza eta adostasuna bilatzen 26 urte eman eta gero.

Bulego hori ixteak babesgabezia eta abandonua dakarzkie eskualdeko langile askori; kasu honetan, gainera, badago inguruabar astungarri bat ere: sektore publikoaren ahultzea, hain zuzen ere.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak erreferentziazko tresna bat itxi du une erabakigarri batean. Ekonomiaren eta lanaren arloetako egungo gertakariak aintzat hartuta, Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoek egiten duten lana behar-beharrezkoa da.

Ordainsariak ez ordaintzea dela-eta, kaleratzeak direla-eta, kontratazio irregularrak direla-eta langileek jarritako demandak, bide judizialera joan aurretik, adiskidetze-ekitalditik igaro behar dute nahitaez.

Erriberako hiriburuan bulego hori egotearen abantailak eztabaida ezin dira: eragile sozialaren eta enpresaburuaren arteko arbitrajea gatazkarekin loturarik ez duen legegari publiko batek egiten du; hortaz, ez da ehunka pertsonaren lekualdatzea gertatuko, eta lekualdatzeak berez dauzkan arriskuak ekidinen dira.

Arbitraje Bulegoa ixterakoan ezin dira lehenetsi arrazoi ekonomikoak; izan ere, ezdeusak dira kuantitatiboki, eta bulegoak dakartzan onurak

baino askoz ere txikiagoa da egitura mantentzearen kostua. Langile publiko bakar bat eta astean behin legegari bat egonez gero, zerbitzuak jarraitutasuna eta sakontasuna dauka.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esparruan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa irekita mantentzeko, azken 26 urteotan lan bitartekaritza eta adostasuna bilatzen emandako zerbitzuari euste aldera.

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten baitu Espainiako Gobernuak Firat Dermikiran-en kasuan izandako jokabidearekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere desadostasuna adierazten du Espainiako Gobernuak Firat Dermikiran-en kasuan izandako jokabidearekin; izan ere, Parlamentuaren ustez, jokabide horrek ez du kontuan hartu Alemaniak errefuxiatu-estatusa eman izana, eta urratu egiten ditu Genevako 1951ko Itunaren errefuxiatuen estatusari buruzko 33.1 artikulua eta 1967ko Protokoloa, zeina 1978an sinatu baitzuen Espainiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio kasu honetan hartutako erabakia berrikus dezan eta Firat Dermikiran aske utz dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez helaraz diezaien Turkiako eta Alemaniako erakunde eskudunei.”

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa, elkartasuna eta aintzatespena aitortzen baitizkio Askatasunaren Flotilla nazioarteko elkartasun-ekimenari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa, elkartasuna eta aintzatespena adierazten die Askatasunaren Flotilla nazioarteko elkartasun-ekimenari eta, kasu honetan, Estelleren eskifaiari, Gazaren blokeoa berriz ere hausten saiatzen ari baitira.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez, Flotilla hori ordezkatzeko duen Estelle belaontziaren balizko abordatzea giza eskubideen urraketa garbia izanen litzateke eta, horrenbestez, gure erabateko gaitzespena jasoko luke.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du nazioarteko erkidegoak modu eraginkorren parte har dezan nazioarteko zuzenbidea ezartzeko eta modu aktiboan zaindu dezan giza eskubideak betetzen direla.

4. Nafarroako Parlamentuak gizarte zibila gonbidatzen du herri palestinarrekiko elkartasun-ekintzetan parte har dezan.

5. Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten du Israelgo Gobernuak Nazio Batuen Erakundearen ebazpenei aurre egitea eta haiek ez betetzea, horrek ez baitu laguntzen bakea lortzen.

6. Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta bere elkartasuna adierazten die Begoña Zabala nafarrari, bakearen flotilla horretako kideetako bat izan baita.

7. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez igor dezan adierazpen hau Israelgo erakunde eskudunetara. Halaber, erakunde horiei dei egiten die hartutako konpromisoak bete ditzaten, Gazako blokeoaren amaiera ziurta dezaten, eta herri palestinarren giza eskubideak ez urratzea berma dezaten, herri hori edozein amaiera-akordiotako alderdi funtsezkotzat hartu behar baita.”

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Gamesako langileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak Gamesa enpresa animatzen du enplegua suntsitzeaz bestelako bideak bila ditzan, Plan Estrategiko berriaren esparruan, eta, nolahi ere, horiek langileekin adostu ditzan, baldin eta horiek ezinbestekoak badira.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, eta Espainiako Gobernuari ere bai, elkarriketak abiaraz ditzan Gamesarekin, enplegua suntsitzeaz bestelako bideak bilatze

aldera; izan ere, sektore hori erreferentziazkoa da, babesten jarraitu beharra dagoena, sektoreak bizi duen egoera txokeko neurrien bidez arintzeko.

– Halaber, Nafarroako Parlamentuak Gamesari nahiz ukitutako administrazioei eskatzen die (Espainiako eta Nafarroako gobernuek) egin beharreko ahalegin guztiak egin ditzaten, zertarako eta Gamesan enplegu-erregulazioko espediente bat abiarazi egin behar baldin bada espediente hori Nafarroan negoziatzen dadin eta espedienteak ukitutako langile guztientzat izan dadin; izan ere, Gamesako langile guztien % 50 Foru komunitatean daude.

– Nafarroako Parlamentuak administrazio publiko eskudun guztiak animatzen ditu –batik bat, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernu–eztabaida serio bat izan dezaten energia berriztagarrien sektorearekin, sektore horrek trakzio-

motorra izaten jarrai dezan Foru Komunitatearen eta Espainia osoaren ekonomiarentzat.”

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak terrorismoaren biktimen eta beren senitartekoen oroitzapena errespetatu eta zaintzearen garrantzia berresten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Berresten du garrantzitsua dela Nafarroako gizarte osoak –bereziki, entitate publikoek eta haien ordezkariak– errespetatzea eta zaintzea terrorismoaren biktimen eta beren senitartekoen oroitzapena.

2. Gonbit egiten die Atarrabiako herritarrei oro har eta haien ordezkari politikoei bereziki, lan egin dezaten elkarbizitza soziala lortzeko, pertsonen eskubide demokratikoekiko errespetu erabatekoa oinarri.”

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkidetzaren aldeko proiektuak eta planak indartu eta susta ditzan ikastetxeetan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen hezkidetzaren aldeko proiektuak eta planak indartu eta susta zitzan ikastetxeetan.

Mozio hori 2012ko urriaren 15eko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, behar duten Nafarroako udalek haien hornitzaileei ordaindu ahal izateko funtsa dela-eta Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena egiteari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, behar duten Nafarroako udalek haien hornitzaileei ordaindu ahal izateko funtsa dela-eta Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmena egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, ondoko galdera egin du, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan.

Zertan da, zehazki, Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, hornitzaileei ordaintzeko funtsa baliatu beharrean dauden Nafarroako udalei buruzkoa? Udalek noiz edukiko dute dirua eskueran?

Iruñean, 2012ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, Amma taldeko lan gatazka konpontzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Amma taldeko lan gatazka konpontzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Amma taldeak kudeatutako Nafarroako zentro geriatrikoetan sortutako egoeraren aurrean, Amma Navarrako hitzarmen kolektiboa (2006-2009) amaitu ostean eta plantillan sortutako egoera ikusita, kontuan hartuta enpresa horrek duen diruaren zati bat diru publikoetatik datorrela eta Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Mendekotasun Agentziaren bidez, mendekotasun politiken gaineko eskumenak dituela, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik enpresa horren lan-gatazka luzea konpontzeko neurririk hartzeko?

Iruñean, 2012ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, 365/2012 Ebazpenak zahar etxeen, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zentroen eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zentroen kudeaketan dituen eraginei buruzkoa.

BIKENDI BAREA Aiestaran JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, 365/2012 Ebazpenak zahar etxeen, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako zentroen eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako zentroen kudeaketan dituen eraginei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak batzordean ahoz erantzun dezan.

Iragan irailaren 19an, Gizarte Politikako eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusiak kreditu-gehituntza bat eskatu zuen, 365/2012 Ebazpenaren bidez, "Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak" kontusailari dagokionez.

Ebazpen horretan adierazten zenez, "Arestiko puntuko finantzaketa ondoko kontusailletako kredituaren kargura egingen da , 2.116.276,79 euroko zenbatekoan, guztira."

Hona kontusailen azalpena:

- Nagusien zentroyen kudeaketa.
- Ezgaitasuna duten pertsonen zentroyen kudeaketa.
- Gaixotasun mentala dutenen zentroyen kudeaketa.

1.- Zer ondorio helduko dira 2012ko irailaren 19ko 365/2012 Ebazpenetik, nagusien zentroyen, ezgaitasuna duten pertsonen zentroyen eta gaixotasun mentala duten pertsonen zentroyen kudeaketari dagokionez?

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Espainiako Itzuliko etapak direla-eta Unipublic-i ordaindutakoari buruzko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuaren Gizarte Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Gaur arte –2012ko urriaren 11–, zenbat diru ordaindu zaio Unipublic-i, Espainiako Itzuliko lehendabiziko bi etapak direla-eta? Zenbat falta da ordaintzeko? Noiz eta nola egingen da ordainketa hori?

Iruñean, 2012ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzak-hitzarmenari buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileentzat “txartel adimentsuak” ezartze aldera Nafarroako Foru Komunitateak eta Banco de Santander S.A.-k eginiko lankidetzak-hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Foru Komunitatearen eta Banco de Santander, S.A.aren artean sinatutako lankidetzak-hitzarmena ikusita, zeinaren bidez ezarri baitziren bien arteko jarduketak ildo lehenetsiak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalentzako “txartel adimentsuak” ezartzeari dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

- Proiektu honen garapen maila.
- Zer profesionalentzako izanen litzateke txartel hori?
- Noizko ezarriko da?
- Nork finantzatuko du zerbitzu hori? Zer zenbaterako du? . Zer alderdi kontrolatu ahalko da txartel horren bidez? Izan ere, hitzarmenean ez da behar bezain garbi gelditu zertarako baliatuko den: ikuztegia, uniformeak, protesiak, kirurgiako materiala, liburutegia, txanpon-txartela, munta txiki-ordainketak, instalazioetarako sarbidea...
- Txartel horretan jasotako datuen jabetza intelektuala, Banco de Santanderrena al da?
- Banco de Santanderrekiko hitzarmen ekonomikoa bukatzen bada, txartel adimentsuetarako akordioa ere bukatuko al da?

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, jakiteko zergatik ez den ordezkatu erretiroa hartu duen Leitzako Nekazaritza Ganberako langile bat.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den ordezkatu erretiroa hartu duen Leitzako Nekazaritza Ganberako langile bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

Leitzako Nekazaritza Ganberako langile batek erretiroa hartu du, eta horrek kalte egin die Leitzako, Goizuetako, Aresoko, Ezkurrako eta Aranoko abeltzainei eta nekazariei. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Zergatik ez da ordeztu erretiroa hartu duen pertsona, zerbitzua ordura arteko baldintza beretan ematen jarraitu ahal izateko?

2. Zer ekimen-mota jarriko du abian Nafarroako Gobernuak, Nafarroako eskualde horretako lehen sektorearentzat bulego horretan ematen zen zerbitzua bermatzen jarraitu ahal izateko?

Iruñean, 2012ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

Tuterako Eza kaleko Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa itxi da, eta horrek kalte egiten dute Erriberako biztanleei. Hori dela-eta, ondo-koa jakin nahi dut:

- Zer dela-eta itxi da bulegoa?

Iruñean, 2012ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, jakitekoa zer eragilerekin koordinatu den Ekintzailtza Plan berria.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer eragilerekin koordinatu den Ekintzailtza Plan berria.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan, Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazi zuen Ekintzailtza Plan berria "eragile guztiekin" koordinatu dela.

Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

- Zer eragilerekin koordinatu da?
- Zer koordinazio-prozedura baliatu da?

Iruñean, 2012ko urriaren 18an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoetako tximinietan kutsagarriak era jarraituan neurtzeko sistemak ezartzeari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Castejongo ziklo konbinatuko zentral termikoetako tximinietan kutsagarriak era jarraituan neurtzeko sistemak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion Nafarroako Gobernuko eskudunak:

Castejongo herrian dauden ziklo konbinatuko zentral termikoen ingurumen-inpaktuaren adierazpenean jasotzen da ingurumen-indarraldiko programa bat taxutzeko betebeharra, bai zentral bakoitzaren obra-fasean, bai funtzionamendufasean ere, inpaktuen nahiz ezarritako neurri zuzentzaileen eraginkortasunaren jarraipena eta kontrola egin ahal izateko.

Ingurumen-indarraldiko programa horren barruan, egiaz egindako jarduketei buruzko txostenak egin beharra dago, urtero, zentrala ustiatzen deneino, eta neurtze-sistema batzuk ezarri beharra dago txosten horiek egiteko.

Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

- Instalaturik al daude zentral etako tximinietan sufre-dioxidoa, nitrogeno-oxidoa eta ozonoa etengabe neurtzeko sistemak?

- Ba al dago sistema informatikorik, kutsatzaile horiek etengabe neurtzeko sistemak lortutako datuak jaso ahala emanen dizkiona kutsadura atmosferikoa zaintzeko Nafarroako sareari?

- Tximinietan neurtze-sistema horiek baldin badaude, zergatik ez dira datuak jakitera ematen Nafarroako Gobernuaren web orrian?

- Aurkezten ari al dira ingurumen-inpaktuaren adierazpenek exijitzen dituzten ingurumen-zaintzari buruzko urteko txostenak? Hala baldin bada, zer datatan aurkezten dira?

- Txosten horiek baldin badaude, ingurumen-inpaktuaren adierazpenetan ezarritakoa betetzen al dute, emisioak ebaluatzeko irizpideei dagokienez?

- Desbideratzeren bat izan al da? Hala bada, zer neurri zuzentzaile hartu da?

- Zer ondorio aurkeztu dira emisioei dagokienez?

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroaren proiektioari eta datozen hilabeteetako lan-dinamikari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroaren proiektioari eta datozen hilabeteetako lan-dinamikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion.

2011ren hasieran, "Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa" sortu zen Nafarroan. Organo horren hasierako lanaren helburua zen txosten bat egitea emakume-salerosketako sareek esplotatutako emakumeen egoerari buruz eta erakundeek errealitate horri aurre egite aldera zer egin ahal eta behar duten proposatzea.

- Zein da, hurrengo hilabetei begira, Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroaren lan-dinamika eta proiektioa?

- Zeintzuk dira Nafarroako Foroak epe labur, ertain eta luzera ezartzen dituen helburuak? Zer tresna baliatuko ditu horretarako?

Iruñean, 2012ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko bi parlamentari kanporatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 22an egindako bileran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunaren idazkia, 2012ko urriaren 22koa, non Mahaiari jakinarazten baitaio parlamentu-talde horretatik kanpo gelditu direla Manu Ayerdi Olaizola jauna eta Patxi Leuza García jauna, Erregelamenduko 31. artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela kanporaketari dagokionez, eta parlamentari horiek atxiki gabeko parlamentarizat hartzea. Horrek ekarriko du arestian esandako parlamentu-taldearen ordezkari gisa batzordeetan betetzen zituzten postuen galera.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Aurrezki Kutxako Kontseilu Nagusiko kide izateko proposatu beharreko pertsonak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 25ean egindako bileran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Aurrezki Kutxako Kontseilu Nagusiko kide izateko pertsona hauek hautatzea:

– José Antonio Asiáin Ayala jauna.

– Pablo Ibáñez Olcoz jauna.

– Miguel Ángel Pozueta Uribe jauna.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera